



HEZKUNTZA SAILA

**ATARIKO PROBA**

**AZTERKETA**

**EREDUAK**



## Euskararen Gaitasun Agiria



### ATARIKO PROBA

#### Azterketa eredua-5

Azterketa-eredua: **A**

#### > IRAKUR ITZAZU OHARROK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu koadernotxo honek 8 orrialde dituela eta ez dagoela ageriko akatsik.
3. Koadernotxo hau ez da zuzentzen, baina idatz itzazu zure izen-deiturak eta NAN zenbakia:

*NAN zenbakia*

*Izena*

*1. deitura*

*2. deitura*

4. Atariko proba egiteko denbora: **50 minutu**.
  5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko **erantzun-orriko B atala**. Kontuan izan orri hori dela zuzentzen dena. Ipin datuak eta markak behar bezala.
  6. Ariketa bakoitzean aukeratu behar duzu erantzun **zuzena** edo **egokiena** edo **zein dagoen gaizki** eta erantzun-orrian dagokion koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra.
  7. Asmatu erantzun bakoitzeko, puntu bat; erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen.
  8. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzentzen da, irakurgailu optiko bidez.
- > Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.

**1 Ortografia. Zein da zuzena?**

- A Bostgarren ihardunaldia.
- B Testu higuigarria.
- C Gustoko gendea.
- D Larogei gaiso.

**2 Errua gurea izan da eta ....**

- A guretako bakoitzak onartu beharko du berea.
- B gutako bakoitzak onartu beharko dugu gurea.
- C gutariko bakoitzak onartu beharko du berea.
- D gugandik bakoitzak onartu beharko dugu gurea.

**3 Niri ez didazu ziririk sartuko!**

**Beste era batera esanda:**

- A Ez nauzu aintzakotzat hartuko.
- B Ez didazu ilerik hartuko.
- C Ez nauzu engainatuko.
- D Ez nauzu erotuko, ez horixe!

**4 Inori obedientzia adierazteko:**

- A Esanak esan.
- B Zure esanetara nago.
- C Esanari nagokio.
- D Esan eta izan.

**5 Ordenagailua ez nuen erosi, ez; erregalatu .... zidaten.**

- A bide
- B ahal
- C egin
- D omen

**6 Aukera zoragarria zen; ....**

- A hura ganora, hura!
- B hura marranta, hura!
- C hura mauka, hura!
- D hura ajea, hura!

**7 Zeinetan dago "egin/egiten" zuzen erabilia?**

- A Inguruko enpresek erre kara bota egiten dituzte zakarrak.
- B Sukarra etorri egiten den bezala joaten da.
- C Hitzarmenak eta antzekoak irakurri egin behar dira izenpetu aurretik.
- D Gauero irakurri egiten dizkiot umeari ipuinak.

**8 Harria airera botatzen baduzu, alde egizu berehala harria buru gainera eror ez .... .**

- A diezazun
- B dakizun
- C zaizun
- D zaitzan

**9 Autobus geltokian zegoela, auto batek harrapatu du gure auzoko lagun bat.**

**Aukeratu erantzun egokiena:**

- A Zoritxar hori!
- B Halako zoritxarra!
- C Zoritxarra halakoa!
- D Hori zoritxarra!

**10 Bada, nork edo nork egin beharko du, aurrera segitu nahi badugu.**

**Hots:**

- A Edozeinek egin beharko du, aurrera segitzekotan.
- B Aurrera segitzekotan, baten batek egin beharko du.
- C Aurrera segitu arren, norbaitek egin beharko du.
- D Norbaitek egin beharko du, aurrera segitzeko bada ere.

**11 Autobusaren erruz heldu da berandu.**

**Beste era batera esanda:**

- A Berandu heldu da; izan ere, autobusa matxuratu egin da.
- B Berandu heldu da; hots, autobusa matxuratu egin da.
- C Berandu heldu da; hain zuzen ere, autobusa matxuratu egin da.
- D Berandu heldu da; zergatik autobusa matxuratu egin da.

**12 Gizakiok nekazari egin ginenean naturak zer emango zain gelditu ginen, eguraldiaren eta urte-sasoien gatibu.**

**Hots:**

- A Gizakiok nekazari egitean eguraldiak menpean hartu gintuen; ez, ordea, urte-sasoiek.
- B Urte-sasoien gatibu bihurtu ginen eta naturak zer emango zain gelditu nekazari izateari uztean.
- C Gizakiok nekazari egitean eguraldiaren eta urte-sasoien menpeko bihurtu ginen.
- D Naturak zer emango zain gelditu ginen eta eguraldia menpean hartu genuen.

- 13 Hainbestean!**  
**Zein da erantzun honi dagokion galdera?**
- A Zenbatean dago bixigua?
  - B Zer moduz zaude?
  - C Zer, bizi al gara?
  - D Zenbat aldiz joan zarete hara?
- 14 Ez ibili niri ....., esan argi eta garbi esan beharrekoa!**
- A bidenabar
  - B itzulginguruka
  - C atzekoz aurrera
  - D ingurumarian
- 15 Alkandora berria erosi duenari esateko:**
- A Sasoian gastatu!
  - B Osasunez urratu!
  - C Osasuntsu gozatu!
  - D Sasoian xahutu!
- 16 Hura biguina, hura, eman zidana Anek egindako arroz esneak!**  
**Beste era batera esanda:**
- A Arroz esneaz bete-bete egin nintzen.
  - B Arroz esnea jateko amorratzen egon nintzen.
  - C Arroz esneak nazka eman zidan.
  - D Arroz esnea behar baino gozoagoa zegoen.
- 17 Bihar autobusa garaiz helduz gero, osabarenera .....** *bazkaltzera.*
- A joan ninteke
  - B joango nintzen
  - C joango ninteke
  - D joan nintzateke
- 18 Gogorrean ezin, eta azpijanean gailendu zitzaizkion etsaiak zaldunari.**  
**Hau da:**
- A Zaldunak ez bezala, etsaiek indarkeria erabili zuten garaipena lortzeko.
  - B Zaldunak aurrez aurreko borrokan lortu zuen etsaiak mendean hartzea.
  - C Azpijokoak erabilia ere, etsaiek ez zuten zalduna menderatzerik izan, adoretsua baitzen.
  - D Amarruak baliatu behar izan zituzten etsaiek zalduna azpiratu ahal izateko.
- 19 Udalean aurkeztu behar duzun eskari-eskutitz baten amaiera:**
- A Nire eskubideek ematen didaten zilegitasunez, agurtzen naiz.
  - B Zuen erantzunaren zain, gero arte.
  - C Eskatutakoa ziur beteko duzueenez, agur.
  - D Nire eskaera aintzat hartuko duzuelakoan, agur.
- 20 Zauria ..... egin zaio, ez duelako behar bezala garbitu.**
- A pozoitu
  - B herdoildu
  - C gaiztotu
  - D hondatu
- 21 Zein dago zuzen?**
- A Zenbait urteetan euri asko egin du.
  - B Messiren bezala izatea da mutiko askoren ametsa.
  - C Bik beti ikusten dute batek baino gehiago.
  - D Nire alabeei jantzi dotoreak oparitu dizkiet.
- 22 Zein da zuzena?**
- A Istorio hori zeuk asmatu ahal zenuen?
  - B Historio hori zeuk asmatu al zenuen?
  - C Istorio hori zeuk asmatu al zenun?
  - D Istorio hori zeuk asmatu al zenuen?
- 23 Hainbatek aipatzen dute kontu hori. Entzungo zenuen, ba!**  
**Erantzuna:**
- A Baita, ahapeka dabil eta!
  - B Bai, hitzetik hortzera dabil eta!
  - C Noski, aho batez dabil eta!
  - D Jakina, marmarka dabil eta!
- 24 Telebistak oso sakoneko eragozpenak ditu urratsak ausart eman ahal izateko, euskal kulturaren eragile nagusi bihurtzeko.**  
**Hots:**
- A Euskal kulturaren nolabaiteko eragile izateko, telebistak izan lezake sakoneko eragozpenik.
  - B Telebistaren eragozpenak handiak dira eragilerik garrantzitsuena bilakatzeko.
  - C Eragozpenik izan ez arren, telebistak urratsak ausart eman behar ditu euskal kulturaren eragile bihurtzeko.
  - D Telebistak sakoneko eragozpenak ditu eta euskal kulturaren adierazgarriak behinena bihurtu da.

25 Zein dago zuzen?

- A Medikuarenean izan naiz.
- B Medikurengandik nator.
- C Medikuan egon naiz.
- D Medikutik nator.

26 Hori ez da horrela, zu ..... .

- A okertuta zaude zeharo
- B erabat oker zatoz
- C oker zaude horretan
- D okerturik zaude guztiz

27 Gaizki ulertuak ..... nahi izanez gero, ..... da biderik egokiena.

- |               |              |
|---------------|--------------|
| A gaitzetsi   | oinazea      |
| B baretu      | artegatasuna |
| C behaztopatu | zurbiltasuna |
| D saihestu    | gardentasuna |

28 Nagusiak eta morroiak, pertsonak diren ....., berdinak dira; baina batak boterea du, eta besteak ez.

- A aldetik
- B apika
- C aitzin
- D arabera

29 Zein dago zuzen?

*Taberna zabalik dago .....*

- A baina ez du pena merezi horra sartzeak.
- B arratsaldeko lauretatik aurrera.
- C mozkorti hori dijoan bakoitzean.
- D baino aspaldi hontan ez du aintzinako girorik.

30 Neu ere zoriontsuagoa nintzateke, aberatsagoa eta politagoa banintz. Baina, badakizu, ..... .

- A zenbat buru, hainbat aburu
- B gaur hitza eman, bihar haizeak eraman
- C balizko errotak, irinik ez
- D gaur irriz, bihar negarrez

31 Epelak hartuta etorri dira etxera bart.

**Beraz:**

- A Jipoitu egin dituzte.
- B Harrera beroa egin diete.
- C Ondo hartu dituzte.
- D Jaten eman diete.

32 - Zertaz ari zineten hitz egiten?

- ..... .

- A Xabiertzaz
- B Laguneri buruz
- C Eguraldiaz
- D Gure gauzetaz

33 Batzuek maiteago dituzte kanpoko ohiturak hemengoak baino.

**Alegia: Batzuek kanpoko ohiturak ..... .**

- A onesten dituzte
- B onartzen dituzte
- C hobesten dituzte
- D hobetzen dituzte

34 Nondik eta nora zabaltzen dira hain azkar esamesak kuadrilla malapartatu honetan?

**Hau da:**

- A Ez dakigu esamesak nondik nora dabiltzan aparteko kuadrilla honetan.
- B Gure lagunartean zelan enteratzen da horren azkar mundu guztia txutxu-mutxuekin?
- C Gure kuadrillan ez dago jakiterik esamesak nondik datozen, ez nora doazen.
- D Gure lagunartean ziztuan zabaltzen dira apartatutakoei buruzko esamesak!

35 Gorputzeko azal zati bat hatz muturren artean estutu:

- A ausiki egin.
- B hazka egin.
- C atximur egin.
- D eztenkatu.

36 Lana sasoiz amaitzeko asmoa dutela ziurtatu digute, nahi izate hutsa zernahitarako aski izango balitz bezala.

**Hau da:**

- A Asmoak asmo, ez du ematen lana garaiz amaitzerik izango dutenik.
- B Lan bikaina egingo duten bermea eman digute.
- C Nahi izanez gero, agindutako epean amaituko dute lana, inondik ere.
- D Nahitaez, berandu gabe amaituko dute lana.

37 *Jai-batzordeak laster iragarriko du jaien ..... .*

- A antolatzailea
- B egitaraua
- C eginkizuna
- D antolaketa

38 **Zein dago zuzen?**

- A Makina bat bidegabekeriak ikusi eta nozitu gara gure inguru honetan.
- B Makina bat bidegabekeria ikusten eta nozitzen behar ditugu gure inguru honetan.
- C Makina bat bidegabekeri ikusi eta nozitu ditugu bizitzaren zehar gure inguru honetan.
- D Makina bat bidegabekeria ikusi eta nozituak gara gure inguru honetan.

39 *Sudur luzea edukiko dut, baina zuk ere ..... !*

- A gehiago
- B askoz gehiago
- C makala
- D ez duzu makala

40 *Hori hizketan hasten denean, bazter guztiak aztoratzen ditu.*

**Hau da:**

- A Denak hunkitzen ditu.
- B Denak lasaitzen ditu.
- C Denak liluratzen ditu.
- D Denak asaldatzen ditu.

41 **Zein dago zuzen?**

- A Gaur ez du hain berorik egiten.
- B Bide luzea geratzen zaigu oraindik.
- C Kontuz, erre egingo zarela!
- D Bihar amatxoarekin noa erosketak egitera.

42 *Zer esan dizute?*

**Erantzuna:**

- A Ezer.
- B Ez didate ezer ere ez esan.
- C Ezer ere ez.
- D Ez didate ezer ez esan.

43 *Ez kezkatu, modu batera edo bestera lortuko dut behar dudana!*

**Hau da: Lasai, ..... lortuko dut!**

- A hala nola
- B halako batean
- C nola edo hala
- D halabeharrez

44 *Krisiaren aitzakian aldaketak gertatzen ari dira ..... .*

- A edozein arrazoiengatik
- B hainbat gaietan
- C zenbait herrialdeetan
- D makina bat arlotan

45 *Bazkariak kalte egin dit; sekulako ..... daukat.*

- A tripa zorria
- B heste luzea
- C bihotzerrea
- D bihotz mina

46 *Tirriki-tarraka ibiltzen da Joxe Mari.*  
**Zer esan nahi du?**

- A Batetik bestera ibiltzen dela.
- B Astiro-astiro ibiltzen dela.
- C Balantzaka, mozkorturik ibiltzen dela.
- D Baldar eta ezinean ibiltzen dela.

47 *Kontxako ontzien arteko aldeak sekulakoak izan zirenez, lausotu egin da datorren igandeko estropadak izan zezakeen xarma.*

**Hau da:**

- A Ontzien arteko aldeak ikusita, sekulako ikusmina dago datorren igandeko estropadak direla eta.
- B Ontzien ezberdintasuna ikusteak eragingo du xarma nagusia datorren igandean.
- C Datorren igandeko lehia indargabetu du ontzien arteko aldeak.
- D Kontxako ontzien norgehiagokak badu xarma berezi bat, beste estropadek ez dutena.

48 ..... eta irakasleak nola ezagutuko ditu, ba, bi ikasle bihurri horiek!

- A Sasieskola egiten dute ia beti
- B Hitz eta pitz egoten dira bai
- C Txilioka daude eskolan
- D Zabu-zabuka daude askotan

49 Bikiak izan arren ez dute ..... antzik.

- A elkarren
- B elkarrekin
- C elkarrekiko
- D elkarrenganako

50 Kazetariak egin dioten kalteagatik haserre, artista ospetsuak ..... jotzea erabaki du.

- A epailera
- B epailearekiko
- C epaitegiarengana
- D auzitara

51 Zein dago zuzen?

- A Batzuk eta besteen artean liskarra dago.
- B Hizkuntz bat baino gehiago dakite.
- C Geure buruari eskatuko diogu erantzuna.
- D Dendak itxitak daude igandetan.

52 - Aizu, egingo al didazu lantxo hori, mesedez?

- .....

Baietz erantzuteko:

- A Egingo ez dizut, ba!
- B Lasai ederrean!
- C Bai, egon horretan!
- D Zelan bada!

53 Adarra jo nahi digute, baina ez diegu ..... barre egiten utziko.

Zein da erantzun zuzena?

- A gure lepotik
- B gure gain
- C gure kontu
- D gure bizkar

54 Zein zerrendatan dago hitz bat **tokiz kanpo**?

- A haizetea / tximista / kazkabarra / ekaitza
- B zauria / beltzunea / hasperena / ubeldua
- C suhia / erraina / aitabitxia / neba
- D iturgina / igeltseroa / hargina / arotza

55 Zergatik ez zara gurekin zinemara etorri?

Erantzun zuzena:

- A Zeren eta ez dut nahi!
- B Hargatik!
- C Zergatik ez!
- D Ezetz, ba!

56 Mutil gaizto haiei hurbildu ..... eta eurak, berriz, harrika hasi .....

- A ginen                      ziren
- B gintzaizkien          zitzaizkigun
- C gintezen                  zitezen
- D genien                      gintuzten

57 - Kaixo, Mainer! Zer Moduz?

- .....

- A Halaber!
- B Hainbestean!
- C Hala nola!
- D Halatsu!

58 Ez dago gizakirik joera zitalik ez duenik, eta bere jarrera zital horri etengabe kontra egitea da gizakiari eska dakioken duintasun bakarra.

- A Gizakiari norberaren joera gaiztoen kontrako borroka eman liezaioke duintasuna.
- B Gizakia berez da zitala eta bere ahuldadea onartzeak egiten du, besterik gabe, gizaki.
- C Joera zitaleri nagusitzen zaie etengabe gizakiaren duintasun berezkoa.
- D Joera zitalen eta gutxieneko duintasunaren arteko lehiatik garaile atera ohi da gizakia.

59 ..... ez ibili ertzetik badaezpada, amildegi handia da hori eta! Kontuz, gero!

- A Et, et, et...
- B Hor ba
- C Han-han
- D Fir-fir

**60 Otordu bat egin ostean egin ohi dena:**

- A Ontziak bildu.
- B Tresneria gorde.
- C Mahaia jaso.
- D Puskak batu.

**61 Zein da zuzena?**

- A Ongi tratatzen badidazu, afaltzera gonbidatuko zaitut.
- B Beharbada, arrisku hori hartzeak arazo handia ekar dakiguke.
- C Ezagutzen didanean, maiteko didala uste dut.
- D Etxera eramango baninduzu, benetan eskertuko nizuke.

**62 Elurra gogotik egin zuen joan den neguan. Zer esan nahi du?**

- A Elurra denen gustura egin zuela.
- B Elur asko egin zuela.
- C Uste baino elur gehiago egin zuela.
- D Elur-maluta handiak egin zituela.

**63 Jolas Parkea datorren astean zabalduko ..... albisteak entzun dugu.**

- A dutelaren
- B dutela
- C dutelakoaren
- D duten

***OHARRA: Hurrengo orrialdean jarraitzen du.***



## Haurrak eta telebista

Bi urteko haurrek zenbat eta telebista gehiago ikusi, are eta aukera handiagoak dituzte hamar urterekin osasun txarra izan eta eskolako martxan gaizki ibiltzeko. Horixe ondorioztatu dute Michiganeko (AEB) eta Montrealeko (Kanada) unibertsitateetako zientzialariek, 1.300 haur baino gehiagorekin egindako ikerketan. Telebista aurrean emandako denborak bi urteko haurren etorkizunean duen eragina neurtu nahi zuten zientzialariek. Zehazki, arrakasta akademikoan, bizitza estiloan eta oro har euren ongizatean zer-nolako eragina duen aztertu dute. Horretarako, bi urteko haurrek telebista aurrean zenbat denbora pasatzen zuten galdetu zieten gurasoei. Haurrek hamar urte betetzean, haien jardun akademiko eta psikosoziala, osasun ohiturak eta gorputz masa indizea (GMI) neurtzeko eskatu zieten haien irakasleei. Emaitzen arabera, bi urterekin telebista gehien ikusten zuten haurrek parte hartze eskasagoa zuten eskolan, emaitza kaskarragoak lortzen zituzten matematiketan, jarduera fisiko gutxiago egiten zuten, zabor-janari gehiago jaten zuten eta GMI altuagoa zuten. Horrela, zientzialarien ustez, harreman zuzena dago txikitan telebista aurrean pasatutako gehiegizko orduen eta arestian aipaturiko ondorio kaltegarrien artean. Nolanahi ere, telebistan hainbeste zabor emango ez balute, haurren adimenean ere nabarituko al litzateke?

*Aizu!, 2010*

### 64 Zer neurtu dute zientzialariek?

- A Telebistaren aztarna hamar urteko ikasleen etorkizunean.
- B Hamar urteko haurren adimenaren eta gorputz masa-indizearen arteko lotura.
- C Telebistaren eragina bi urteko umeen garapenean.
- D Bi eta hamar urte bitartean umeek ikusi duten telebista-ordu kopurua.

### 65 Zein da ikerketaren ondorioa?

- A Telebista aurrean emandako denborak eta eskolako emaitzek lotura estua dutela.
- B Telebistaren kalitatea hobea balitz, haurren adimenean ere eragin zuzena edukiko lukeela.
- C Umeek zabor-janari gehiegi jaten dutela, telebistari begira daudela.
- D Zenbat eta telebista gehiago ikusi, orduan eta gustukoagoa dutela zabor-janaria.

### OHARRA:

**Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NAN zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.**



## ERANTZUN-ORRIA

### A. HASI AURRETIKO OHARRAK

1. Ez tolestu, ez zimurtu orri hau.
2. 2 zenbakiko arkatza erabili betetzeko.
3. Erantzuten hasi baino lehen bete ezazu B atala.
4. Zuzendu nahi baduzu, borragomaz ongi ezabatu.
5. Ez mugitu aukitik; zerbait nahi baduzu, aitxa eskua.

### B. IDATZI ZURE DATUAK

Izen-deiturak: .....

(Deialdi itxien kasuan) zein euskaltegiren bidez matrikulatu zara?

Idatz ezazu zure NAN zenbakia, ikus adibidea.

| ADIBIDEA |   |   |   |   |   |   |   |  |  | ZURE ZENBAKIA |   |   |   |   |   |   |   |  |  |
|----------|---|---|---|---|---|---|---|--|--|---------------|---|---|---|---|---|---|---|--|--|
| 0        | 8 | 9 | 0 | 7 | 8 | 2 | 9 |  |  | 0             | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |  |  |
| 0        | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |  |  | 0             | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |  |  |
| 1        | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |  |  | 1             | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |  |  |
| 2        | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |  |  | 2             | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |  |  |
| 3        | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |  |  | 3             | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |  |  |
| 4        | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 |  |  | 4             | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 |  |  |
| 5        | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 |  |  | 5             | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 |  |  |
| 6        | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 |  |  | 6             | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 |  |  |
| 7        | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 |  |  | 7             | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 |  |  |
| 8        | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 |  |  | 8             | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 |  |  |
| 9        | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 |  |  | 9             | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 |  |  |

Adminis-  
trazioak  
betetzeko

HONELA BAI



HONELA EZ



### AZTERKETA EREDUA

Galdere-orrietan agertzen den eredu-letrak eta azpian markatutakoak bat etorri behar dute. Horrela ez bada, aitxa eskua.

A B C D E F G H

Idatz ezazu gaurko data:

| Urtea | Hila | Eguna |
|-------|------|-------|
|       |      |       |

### C. ZURE ERANTZUNAK

|    |         |    |         |    |         |    |         |     |         |
|----|---------|----|---------|----|---------|----|---------|-----|---------|
| 1  | A B C D | 21 | A B C D | 41 | A B C D | 61 | A B C D | 81  | A B C D |
| 2  |         | 22 |         | 42 |         | 62 |         | 82  |         |
| 3  |         | 23 |         | 43 |         | 63 |         | 83  |         |
| 4  |         | 24 |         | 44 |         | 64 |         | 84  |         |
| 5  | A B C D | 25 | A B C D | 45 | A B C D | 65 | A B C D | 85  | A B C D |
| 6  |         | 26 |         | 46 |         | 66 |         | 86  |         |
| 7  |         | 27 |         | 47 |         | 67 |         | 87  |         |
| 8  |         | 28 |         | 48 |         | 68 |         | 88  |         |
| 9  | A B C D | 29 | A B C D | 49 | A B C D | 69 | A B C D | 89  | A B C D |
| 10 |         | 30 |         | 50 |         | 70 |         | 90  |         |
| 11 |         | 31 |         | 51 |         | 71 |         | 91  |         |
| 12 |         | 32 |         | 52 |         | 72 |         | 92  |         |
| 13 | A B C D | 33 | A B C D | 53 | A B C D | 73 | A B C D | 93  | A B C D |
| 14 |         | 34 |         | 54 |         | 74 |         | 94  |         |
| 15 |         | 35 |         | 55 |         | 75 |         | 95  |         |
| 16 |         | 36 |         | 56 |         | 76 |         | 96  |         |
| 17 | A B C D | 37 | A B C D | 57 | A B C D | 77 | A B C D | 97  | A B C D |
| 18 |         | 38 |         | 58 |         | 78 |         | 98  |         |
| 19 |         | 39 |         | 59 |         | 79 |         | 99  |         |
| 20 |         | 40 |         | 60 |         | 80 |         | 100 |         |

ATARIKO PROBA • Azterketa eredua-5 • (item zk / Erantzuna)

|    |   |    |   |    |   |    |   |    |   |
|----|---|----|---|----|---|----|---|----|---|
| 1  | B | 16 | C | 31 | A | 46 | D | 61 | D |
| 2  | C | 17 | A | 32 | C | 47 | C | 62 | B |
| 3  | C | 18 | D | 33 | C | 48 | A | 63 | D |
| 4  | B | 19 | D | 34 | B | 49 | A | 64 | C |
| 5  | C | 20 | C | 35 | C | 50 | D | 65 | A |
| 6  | C | 21 | C | 36 | A | 51 | C |    |   |
| 7  | C | 22 | D | 37 | B | 52 | A |    |   |
| 8  | B | 23 | B | 38 | D | 53 | A |    |   |
| 9  | D | 24 | B | 39 | D | 54 | B |    |   |
| 10 | B | 25 | A | 40 | D | 55 | B |    |   |
| 11 | A | 26 | C | 41 | B | 56 | B |    |   |
| 12 | C | 27 | D | 42 | C | 57 | B |    |   |
| 13 | B | 28 | A | 43 | C | 58 | A |    |   |
| 14 | B | 29 | B | 44 | D | 59 | A |    |   |
| 15 | B | 30 | C | 45 | C | 60 | C |    |   |